

## 2021ean, hamar udalerrik Euskal AEko BPGren erdia baino gehiago sortu zuten

**Hiriburuek BPGren guztizkoaren %37 metatzen dute, eta zerbitzuetan oinarritutako egiturari eusten diote. Egitura hori nabarmenagoa da Bilbon eta Donostian, eta industriak presentzia handiagoa du Gasteizen**

Euskal AEko BPGren %51,9 hamar udalerritan kontzentratu zen 2021ean, horien artean hiru hiriburuetan, Eustatek landutako datuen arabera. Euskal AEan Barne Produktu Gordin handiena sortzen duen udalerria (hiriburua ez dena) **Barakaldo** da: Bizkaiko Bilbo Handia eskualdean kokatzen da, eta 2021ean 2.413 milioi eurora iritsi zen. Haren atzetik daude Irun (Bidasoa Beherea, Gipuzkoa) 1.909 milioi euroekin eta **Getxo** (Bilbo Handia, Bizkaia) 1.669 milioi euroekin. Hiruren artean Euskal AEko BPG osoaren %7,7 dira. Ekoizpen-maila horien gainera, hiru lurralde historikoetako hiriburuak baino ez daude. **Bilbo** nabarmentzen da 12.241 milioi euroekin 2021ean, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko BPGren %15,7. Ondoren, **Gasteiz** eta **Donostia** daude, 9.003 milioi euroekin eta 7.646 milioi euroekin, BPG osoaren %11,5 eta %9,8 direlarik, hurrenez hurren.

### BPG altuena (milaka euro) izan duten udalerriak, Euskal AEko BPGren gaineko ehunekoa eta horien banaketa 4 sektoretan (%). 2021

|                            | Udal BPG (milaka euro) | Euskal AEko BPGren gaineko ehunekoa | Udal BPGaren sektorekako banaketa (%) |                       |            |             |
|----------------------------|------------------------|-------------------------------------|---------------------------------------|-----------------------|------------|-------------|
|                            |                        |                                     | NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, ARRANTZA    | INDUSTRIA ETA ENERGIA | ERAIKUNTZA | ZERBITZUAK  |
| <b>Euskal AE</b>           | <b>78.038.814</b>      |                                     | <b>0,8</b>                            | <b>23,4</b>           | <b>5,2</b> | <b>70,6</b> |
| 1 Bilbao                   | 12.241.114             | 15,7                                | 0,0                                   | 3,4                   | 4,4        | 92,2        |
| 2 Vitoria-Gasteiz          | 9.002.624              | 11,5                                | 0,2                                   | 24,9                  | 5,0        | 69,9        |
| 3 Donostia / San Sebastian | 7.645.900              | 9,8                                 | 0,0                                   | 5,6                   | 4,7        | 89,7        |
| 4 Barakaldo                | 2.413.270              | 3,1                                 | 0,0                                   | 6,1                   | 7,8        | 86,1        |
| 5 Irun                     | 1.909.237              | 2,4                                 | 0,1                                   | 16,4                  | 7,0        | 76,5        |
| 6 Getxo                    | 1.669.549              | 2,1                                 | 0,0                                   | 2,8                   | 5,5        | 91,7        |
| 7 Leioa                    | 1.608.238              | 2,1                                 | 0,0                                   | 15,2                  | 3,0        | 81,8        |
| 8 Zamudio                  | 1.455.878              | 1,9                                 | 0,1                                   | 43,4                  | 4,3        | 52,2        |
| 9 Amorebieta-Etxano        | 1.324.991              | 1,7                                 | 0,3                                   | 28,0                  | 3,7        | 68,0        |
| 10 Basauri                 | 1.264.439              | 1,6                                 | 0,0                                   | 26,2                  | 5,9        | 67,9        |

Data 2024ko Apirilaren 25a

Iturria: Eustat. Udal BPG

Udalerri horien **ekoizpen-egiturari** erreparatzen badiogu, azpimarratzekoa da Barakaldo **zerbitzu-hiriaren** eredu sendoa dela. Jarduera horrek bere BPGren %86,1 sortzen du, eta merkatukoak ez diren osasun-jarduerak nabarmentzen dira, zerbitzu guztien %20,7 eta udalerriko jarduera ekonomiko osoaren %17,9 baitira. Presentzia nabarmena duen beste zerbitzu-sektore bat txikizkako merkataritza da. Getxoko udalerria, halaber, zerbitzuen produkzioan oinarritzen da, bere produkzio-jardueraren %91,7 baita, eta ingeniariaritza-

zerbitzuak dira, merkataritzarekin batera, udalerriari jarduera ekonomiko handiena ematen diotenak.

Bestalde, Irunek egitura orekatuagoa du bi sektore handien artean; izan ere, zerbitzu-jardueren presentzia (BPGren %76,5) garrantzitsua bada ere, merkataritza, garraioari atxikitako jarduerak edo salgaien lurreko garraioa nabarmentzen dira. Hala ere, industria-jardueraren adarrek pisu handiagoa dute Barakaldokoek eta Getxokoek baino, udalerriko BPGren %16,4 hartzen baitute, eta zutabe nagusiak metalezko gaien, garraio-materialaren eta plastikozko gaien fabrikazioa dira.

### Gasteiz, Arabako ekonomiaren motorra

Arabako lurralde historikoko hiriburua, **Gasteiz**, Arabako Lautadaren jarduera ekonomiko osoaren %93,4 da. Biak batera, 9.003 milioi euroko BPGra iritsi ziren 2021ean, Arabako BPGren %73,2 izanik. Vitoria-Gasteizek, gainera, Euskal AEko guztizkoaren oso antzeko produkzio-egitura du, eta zerbitzuen sektore garrantzitsua du — Arabako hiriburuko BPG osoaren %69,9 —, enpresei laguntzeko jardueretan nahiz etxeetara bideratutako zerbitzuetan oinarritua, baina Industria eta Energia sektoreko adarretan ere pisu handia du, %24,9. Eraikuntzak (%5) eta lehen sektoreak (%0,2) osatzen dute egitura ekonomikoa.

### BPG handiena duten Arabako udalerriak (milaka euro), lurralde historiko osoaren gaineko ehunekoa eta 4 sektoretan duten banaketa (%). 2021

|                               | Udal BPG (milaka euro) | Arabako BPGren gaineko ehunekoa | Udal BPGaren sektorekako banaketa (%) |                       |            |             |
|-------------------------------|------------------------|---------------------------------|---------------------------------------|-----------------------|------------|-------------|
|                               |                        |                                 | NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA  | INDUSTRIA ETA ENERGIA | ERAIKUNTZA | ZERBITZUAK  |
| <b>Araba/Álava</b>            | <b>12.298.573</b>      |                                 | <b>1,6</b>                            | <b>30,2</b>           | <b>4,5</b> | <b>63,7</b> |
| 1 Vitoria-Gasteiz             | 9.002.624              | 73,2                            | 0,2                                   | 24,9                  | 5,0        | 69,9        |
| 2 Laudio/Llodio               | 611.312                | 5,0                             | 0,4                                   | 32,2                  | 3,0        | 64,4        |
| 3 Amurrio                     | 321.298                | 2,6                             | 1,4                                   | 45,2                  | 6,1        | 47,3        |
| 4 Legutio                     | 310.632                | 2,5                             | 0,4                                   | 79,8                  | 0,9        | 18,9        |
| 5 Oyón-Oion                   | 219.300                | 1,8                             | 7,8                                   | 62,7                  | 3,6        | 25,9        |
| 6 Iruña Oka/Iruña de Oca      | 198.469                | 1,6                             | 0,7                                   | 31,6                  | 3,2        | 64,5        |
| 7 Agurain/Salvatierra         | 183.844                | 1,5                             | 1,6                                   | 32,4                  | 1,8        | 64,2        |
| 8 Laguardia                   | 171.063                | 1,4                             | 8,7                                   | 45,3                  | 1,6        | 44,4        |
| 9 Asparrena                   | 115.877                | 0,9                             | 1,6                                   | 61,2                  | 1,9        | 35,3        |
| 10 Ribera Baja/Erriberabettia | 103.051                | 0,8                             | 1,7                                   | 53,8                  | 2,1        | 42,4        |

Data 2024ko Apirilaren 25a


Iturria: Eustat. Udal BPG

Sektore ekonomiko nagusiak jarduera-adarren arabera bereizten baditugu, Industria eta Energia sektorean motordun ibilgailuen fabrikazioa eta kautxuzko produktuen fabrikazioa dira Arabako hiriburuko ekonomian erreferenteak diren bi jarduerak, bien artean industria-sektore osoaren %43,6 osatzen baitute. Zerbitzuen sektorean, bestalde, pisurik handiena duten adarrak administrazio publikoek hornitutako zerbitzuak (%11,5) eta txikizkako merkataritza (%7,2) dira.

Hiriburuaren ondoren, **Laudioko** udalerria da jarduera ekonomiko handiena ematen diona lurralde historikoari, 611 milioi euroko BPG izan zuen 2021ean, Araban sortutako jarduera osoaren %5. Ondoren, **Amurrio** (321 milioi euro) eta **Legutio** (219 milioi euro) daude, guztizkoaren %2,6 eta %2,5, hurrenez hurren.

## BPG, Arabako udalerrien arabera. 2021

Milaka euroak



Iturria: Eustat. Udal BPG

Arabako lurralde historikoan jarduera ekonomiko gehien sortzen duten udalerriek ezaugarri komun bat dute: industria-adarrek garrantzi handia dute BPGren guztizkoan, Euskal AEko batez bestekoa baino askoz handiagoa, eta ez da inola ere guztizkoaren %30etik jaisten. Udalerrri horietako industria-jardueraren barruan, aipagarriak dira siderurgiako produktuen fabrikazioa (Legutioko BPGren %23,6 edo Amurrioren %15,6) eta metalen galdaketa (Iruña Okako jarduera orokorraren %15,8 eta Agurainen %12,8). Era berean, oso garrantzitsua da trenbideko materialaren ekoizpena Erriberabeitian (BPGren %46,3), edarien fabrikazioa Oionen (%26,3), beirazko produktuen fabrikazioa (Laudion guztizkoaren %12,8 sortzen du), metalezko artikuluen fabrikazioa (Guardiako BPGren %20) eta esnekien ekoizpena Asparrenan (2021ean bere jarduera ekonomiko osoaren %28).

## Bilbo Handiko eskualdeak Bizkaiko BPGren %76 sortu du

2021ean zehar Bizkaiko lurralde historikoan BPG gehien sortu duten 10 udalerrietatik bederatzi, hiriburua barne, Bilbo Handiko eskualdekoak dira, lurraldeko jarduera ekonomiko guztiaren %76 biltzen duen eskualdekoak. Eskualde horretatik kanpo, soilik Amorebieta-Etxano (Durangaldea) dago BPG handiena duten 10en artean, Bizkaiko ekonomiaren %3,3.

## BPG handiena duten Bizkaiko udalerriak (milaka euro), lurralde historiko osoaren gaineko ehunekoa eta 4 sektoretan duten banaketa (%). 2021

|                     | Udal BPG (milaka euro) | Bizkaiko BPGren gaineko ehunekoa | Udal BPGaren sektorekako banaketa (%) |                       |            |             |
|---------------------|------------------------|----------------------------------|---------------------------------------|-----------------------|------------|-------------|
|                     |                        |                                  | NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA  | INDUSTRIA ETA ENERGIA | ERAIKUNTZA | ZERBITZUAK  |
| <b>Bizkaia</b>      | <b>39.702.791</b>      |                                  | <b>0,8</b>                            | <b>18,2</b>           | <b>5,2</b> | <b>75,8</b> |
| 1 Bilbao            | 12.241.114             | 30,8                             | 0,0                                   | 3,4                   | 4,4        | 92,2        |
| 2 Barakaldo         | 2.413.270              | 6,1                              | 0,0                                   | 6,1                   | 7,8        | 86,1        |
| 3 Getxo             | 1.669.549              | 4,2                              | 0,0                                   | 2,8                   | 5,5        | 91,7        |
| 4 Leioa             | 1.608.238              | 4,1                              | 0,0                                   | 15,2                  | 3,0        | 81,8        |
| 5 Zamudio           | 1.455.878              | 3,7                              | 0,1                                   | 43,4                  | 4,3        | 52,2        |
| 6 Amorebieta-Etxano | 1.324.991              | 3,3                              | 0,3                                   | 28,0                  | 3,7        | 68,0        |
| 7 Basauri           | 1.264.439              | 3,2                              | 0,0                                   | 26,2                  | 5,9        | 67,9        |
| 8 Erandio           | 1.027.075              | 2,6                              | 0,1                                   | 21,6                  | 7,2        | 71,1        |
| 9 Galdakao          | 995.252                | 2,5                              | 0,2                                   | 20,4                  | 7,0        | 72,4        |
| 10 Santurtzi        | 955.453                | 2,4                              | 0,2                                   | 4,1                   | 8,3        | 87,4        |

Data 2024ko Apirilaren 25a

Iturria: Eustat. Udal BPG


Ekoizpen-ahalmen handiena duten Bizkaiko udalerrien barruan, **Bilbo, Barakaldo, Getxo, Leioa eta Santurtzik** zerbitzu-hornitzaile ugari dituzte, eta oso garrantzitsuak dira, sortzen duten BPGren bolumenagatik. Leioako udalerrian merkatukoa ez den hezkuntza-jarduera dago: Euskal Herriko Unibertsitatearen jarduerarekin oso lotuta dago, eta bere BPGren %29,3 sortzen du. Barakaldok merkatukoak ez diren osasun-jarduerak ditu: bere jardueraren %17,9 osatzen dute, eta, neurri handi batean, udalerriko ospitale-jardueraren ondorioz sortzen baitira. Garrantzi handia duten beste zerbitzu batzuk ingeniari- eta arkitektura-zerbitzuak dira: Getxon BPGren %9,1era iristen dira, edo Santurtziko portu-jarduera-garraioari lotutako zerbitzuak, kostaldeko udalerriko guztizkoaren %20 osatzen dute.

Bilboren kasuan, zerbitzuen adarren jarduera-bolumena askoz banatuago dago: Administrazio Publikoen zerbitzuak (%8,3), finantza-zerbitzuak (%5,9), txikizkako merkataritza (%4,8) eta ostalaritza (%4,7).

Bestalde, **Zamudion, Amorebieta-Etxanon, Erandion, Galdakaon eta Basaurin** zerbitzuen pisuaren zati bat industria-jarduerari laga diote, eta ekoizpen-jarduerak indarra hartu dute: aeronautika-eraikuntzak Zamudioren kasuan (BPGren %13,1), siderurgiako produktuen fabrikazioak (jardueraren %7,6 Basaurin eta %4,2 Amorebieta-Etxanon), burdinarik gabeko metalen ekoizpenak (eztainua edo zinka, esaterako) Erandion (BPGren %9) eta edarien fabrikazioak Galdakaon (jarduera osoaren %5,6).

## BPG, Bizkaiko udalerrien arabera. 2021

Milaka euro



Iturria: Eustat. Udal BPG

### ***Gipuzkoa da jarduera ekonomiko gutxien zentralizatua duen lurralde historikoa***

Bizkaian eta Araban, jarduera ekonomiko gehiena eskualde batean batzen da: Bilbo Handia Bizkaian, jardueraren %76rekin, eta Arabako Lautada Araban, %78,5ekin. Gipuzkoan, aldiz, produkzio-egitura deszentralizatuagoa dago: bertan, pisu handiena duen eskualdea Donostialdea den arren, lurralde historikoko jarduera ekonomikoaren %47,7 baino ez da (**Donostia**, **Hernani**, **Errenteria** edo **Oiartzun** barne hartzen ditu). Horrela, lurralde osoan zehar hedatzen diren beste eskualde batzuei protagonismo handiagoa ematen zaie, eta udalerri garrantzitsu guztiak hartzen dituzte jarduera ekonomikoa sortzeari dagokionez.

Debagoiena, non **Arrasate** eta **Oñati** dauden, lurralde historikoaren BPGren %10,4 da; Goierri, **Beasain** buru dela, %10,1era iristen da; Urola Kostak, **Zarautz** barne, %9,6 sortzen du; eta Bidasoa Behereak, non **Irungo** jarduera handia nabarmentzen den, lurraldean sortutako jarduera osoaren %8,9.

Udalerri horien sektore-egiturari dagokionez, beste behin ere argi eta garbi nagusitzen da Donostia hiriburuan **zerbitzu-jarduerak** duten garrantzia, jarduera ekonomiko guztiaren %89,7ra iristen baita, eta nabarmentzekoak dira merkatuko nahiz merkatukoak ez diren osasun-jarduerak (%11,9), administrazio publikoen zerbitzuak (%7,2) edo ostalaritza (udalerriaren jardueraren %5,6).

## BPG handiena duten Gipuzkoak udalerriak (milaka euro), lurralde historiko osoaren gaineko ehunekoa eta 4 sektoretan duten banaketa (%). 2021

|                            | Udal BPG (milaka euro) | Gipuzkoako BPGren gaineko ehunekoa | Udal BPGaren sektorekako banaketa (%) |                       |            |             |
|----------------------------|------------------------|------------------------------------|---------------------------------------|-----------------------|------------|-------------|
|                            |                        |                                    | NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA  | INDUSTRIA ETA ENERGIA | ERAIKUNTZA | ZERBITZUAK  |
| <b>Gipuzkoa</b>            | <b>26.037.450</b>      |                                    | <b>0,7</b>                            | <b>27,9</b>           | <b>5,5</b> | <b>65,9</b> |
| 1 Donostia / San Sebastian | 7.645.900              | 29,4                               | 0,0                                   | 5,6                   | 4,7        | 89,7        |
| 2 Irun                     | 1.909.237              | 7,3                                | 0,1                                   | 16,4                  | 7,0        | 76,5        |
| 3 Arrasate/Mondragon       | 1.007.656              | 3,9                                | 0,2                                   | 28,2                  | 7,0        | 64,6        |
| 4 Hernani                  | 885.907                | 3,4                                | 0,3                                   | 50,2                  | 3,5        | 46,0        |
| 5 Beasain                  | 867.420                | 3,3                                | 0,2                                   | 65,0                  | 2,9        | 31,9        |
| 6 Errenteria               | 816.910                | 3,1                                | 0,1                                   | 22,4                  | 5,3        | 72,2        |
| 7 Eibar                    | 749.658                | 2,9                                | 0,2                                   | 17,7                  | 8,9        | 73,2        |
| 8 Oiartzun                 | 678.878                | 2,6                                | 0,3                                   | 28,1                  | 5,5        | 66,1        |
| 9 Zarautz                  | 665.992                | 2,6                                | 0,5                                   | 13,1                  | 10,9       | 75,5        |
| 10 Oñati                   | 636.828                | 2,4                                | 0,7                                   | 68,4                  | 2,2        | 28,7        |

Data 2024ko Apirilaren 25a


Iturria: Eustat. Udal BPG

Irun, Errenteria, Eibar eta Zarautz dira **zerbitzuen sektorean** presentzia handia duten beste udalerri batzuk. Horietan guztietan jardueraren %70 gaintzen dute, eta garrantzi berezia dute garraioarekin lotutako jarduerak, Zarautzko jarduera ekonomikoaren %15,6 sortzeko gai direnek, eta Eibarko merkataritzak, handizkako eta txikizkako merkataritza batuta, %12,4osatzen du.

Bestalde, **industria-pisu** handiena duten udalerriak Oñati (jarduera ekonomikoaren %68,4), Beasain (%65) eta Hernani (%50,2) dira. 2021ean presentzia industrial nabarmena duten beste batzuk Arrasate/Mondragón (%28,2) eta Oiartzun (%28,1) dira, neurri txikiagoan bada ere. Udalerrri horietan manufaktura-ekoizpeneko jarduerarik aipagarrienak honako hauek dira: erabilera orokorreko makineriaren fabrikazioa (Oñatiko jardueraren %24,7 edo Hernanikoaren %10,4), trenbide-materialaren fabrikazioa (Beasainen BPGren %49,2), motordun ibilgailuen fabrikazioa (Arrasateko jarduera ekonomiko osoaren %6,6) eta Oiartzungo osagai elektronikoaren fabrikazioa (BPGren %8,4).

## BPG, Gipuzkoako udalerrien arabera. 2021

Milaka euro



Iturria: Eustat. Udal BPG

**Ohar metodologikoa:** Datuak hobeto interpretatzeko, **Udal BPGren** eta **Udal errentaren** kontzeptuen arteko bereizketa azpimarratu behar da. BPG produkzioari eta lurraldean aberastasuna sortzeari lotuta dago, eta produkzio-establezimendu garrantzitsuak dituzten udalerrietan kontzentratzen da. Errenta, aldiz, pertsonen eta haien bizilekuari lotuta dago.

### Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62